

ALTZAZA! PORRU




Euskal Herriko
Trikitixa Elkarte
L.G.: SS-418/01

EUSKAL HERRIKO TRIKITIXA ELKARTEAREN BOLETINA

2005eko martxoa / 16. zenbakia

SOINUAREN HOTSA, TRIKITIXAREN HISTORIA SAREAN



Horrelaxe du izena trikitixaren webgune berriak, **Soinuaren Hotsa**, eta www.trikimailua.com helbidean dago denen eskura. Soinu txikia historian kokatzeko ahalegin bete da, hein batean. Hain zuzen ere,

Trikitixaren Entziklopedia osatzeko asmoari lotuta dator webgunea, eta lan-tresna aparta ere bada etengabeko ikerketarako; alor didaktikoa eta ludikoa albo batera utzi gabe. Webguneak hiru atal nagusi izango ditu: **HIZTEGIA**, **KRONOLOGIA**, eta **DOINUTEGIA**.

KRONOLOGIA

Hemen bildu da, urtez urte, XVII. mende amaieratik hasi eta XXI. honetaraino, dataren arabera saillka litekeen guztia: txapelketak, debekuak, trikitixari buruzkoak, trikitilarien jaiotza eta heriotza-urteak, diskoen argitalpen-urteak, nazioarteko jaialdiak... denetariko datuak alegia. Erreferentzia horiei lagungarri zaizkien **testu**, **doinu** eta **irudiak** ere eskura izango dira, aldiro.

HIZTEGIA

Trikitixaren munduari buruzko hiztegia ageri da **alfabetikoki** ordenatuta, hala **pertsonak** nola **erakundeak** eta **termino teknikoak** aintzat hartuta. Esate baterako, Elgeta, hauspoa, koplak, Larrinaga-Guerrini, Loiola Irratia, Maltzeta, zentsura...

DOINUTEGIA

Kantuak bildu dira hemen, hiru azpisailetan:

Partitura: Azpiatal honetarako zenbait kanturen partiturak digitalizatu dira. Modu honetan, hurrek kantu hauekin jolas egin ahal izango dute, eta ikasle-irakasleek hainbat partitura eskuratu.

Doinua: Azpiatal honen bidez, nahi duen orok hainbat pieza deskargatu ahal izango ditu.

Letrak: Lehengo lekukotza jasotze bidean, aurreko belaunaldietako piezen letrak izan dira batez ere jomuga. Kantu modernoan kasuan, berriz, zenbait hautatu dira, aniztasuna islatzea gogoan hartuta.

ERABILERA

Lehen orrialdean, **Kronologia**, **Hiztegia** eta **Doinutegia** izeneko atalez gainera, beste hainbat atal ere gehitu dira. **Soinu txikiak** (marrazkian) emango digu aukera atal horietara sartzeko, bertako botoietan klikatuz gero. Soinuaren ezkerreko botoiak klikatuta, honako atal hauei sartzeko aukera izango dugu: **Debekuak**, **soinuaren koloreak**, **panderojoleak**, **hitzaldiak**, **erromeria** eta **soinujoleak**. Guztira sei aukera, beraz. Eskuinaldeko botoietan gora eta beheara ibiliz gero, berriz, beste zazpi aukera hauekin egingo dugu topo: **Omenaldiak**, **koplak**, **bikoteak**, **txapelketak**, **diskografia**, **soinugileak** eta **taldeak**.

Esan beharrik ez dago trikitixaren zoko-moko oro ezagutzeko aukera polita dela webgune berri hau, orain arte Trikitixa Elkarteak martxan duen webgunearen haritik eta haren osagarri; trikitixaz gehiago jakin nahi duenarentzat lanabes bikaina.

BATZAR NAGUSIAREN HARIRA

BATZAR NAGUSIA

Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak **otsailaren 15ean** egin zuen urteroko **Batzar Nagusia**. Bertan 14 lagun bildu ziren, eta honako gaiez jardun ziren: Elkartearen egitura eta estatutuez, 2004ko ekintzen nondik norakoez eta diru kontuez, hain juxtu. Ildo honetan, iazko ekimenen errepasoa egin ondotik, 2005eko plangintzarako hainbat egitasmoren proposamena ere egin zen bildutakoen artean.

Hain zuzen ere, Batzar Nagusia **bazkide guztiak** osatzen dute, eta urtean behin bilduko da. Aurten, gainera, bazkide-kopurua igo egin da. Izan ere, nahiz eta lehendik bazkide eginda zeudenetatik 9k baja eman, 21 bazkide berrirekin ekin dio aurtengo urteari EHTEK.

ELKARTEAREN EGITURA ETA ESTATUTUAK

Elkartearen egiturari dagokionez, honako lagun hauek osatzen dute **Zuzendaritza Batzordea**:

- **Lehendakaria:** Joseba Tapia
- **Lehendakariordea:** Gema Sistiaga
- **Idazkaria:** Agurtzane Aizpuru
- **Diruzaina:** Juanjo Manterola
- **Mahaikideak (5):** Mixel Lastiri, Maider Urkizu, Xabier Arakama, Koldo Iturbe eta Errando Lopez de Luzuriaga.

Bestalde, Elkartearen eguneroko martxa dela-eta, bi liberatu aritu dira Elkartearen bertan lanean. **Iban Urizarrek** bere lanaldi erdia audioaren digitalizazioari eskaini dio, eta **Agurtzane Aizpuru** liberatu osoa, berriz, Elkartearen kudeaketa orokorraz arduratu da.

Elkartearen martxa langileen eta Zuzendaritza Batzordearen esku dago batik bat, baina estatutuetan erabakitakoak ere berebiziko garrantzia du, erabaki horiek bideratuko baitute Elkartearen norabidea. Hori dela eta, EHTEko **estatutuak** 2004ko urrian berri ziren, aurreko Batzar Nagusia 2002ko urrian egin zelako. Hartara, beste bi urtetarako (2006ko urrira arte) daude berriak. Dena den, Espainiako Elkartearen legea bera aldatu dela-eta, estatutuetan zenbait puntu eguneratu beharra dagoela uste da. EHTEren iritziz, komenigarria da estatutuei buruzko zenbait alderdiren gainean **hausnarketa** egitea. Bide honetan, jakinarazi nahi da datorren urteko otsailerako egin behar direla estatutu berrien aldaketarako proposamenak, orduantxe aurkeztuko baititu **Zuzendaritza Batzordeak** bildutako proposamen guztiak. Ondoren, bozkatu egingo dira Batzar Nagusian, eta jarraian estatutu berrien izen-ematea egingo da erregistroan.

2004KO EKINTZEN NONDIK NORAKOAK

2004. urteko ekintzak hiru sailetan bana genitzake: **Dokumentazio-arloari** dagokionak, **irakaskuntzaren** ingurukoak eta **hedaketara** bideratutakoak, hain zuzen.

DOKUMENTAZIOA

Dokumentazioaren alorrean asko aurreratu da, eta trikitixari buruzko material ugari bildu da. Pixkanaka-pixkanaka, Elkartea trikitixari buruzko dokumentazioaren bilgune eta erreferentzia sendoagoa bihurtzen ari den seinale garbia. Hona hemen **dokumentazio-zentroan** bildu den materialaren deskripzio xeheagoa: urteko prentsako artikulak (272), fitxa biografikoak (114), argazkiak (1951), audio komertziala (241), audio ez komertziala (336), liburutegia (31), prentsa (1384), partiturak (1353) eta txapelketak (23).

Dena den, materiala biltzeaz gain, **digitalizatzeaz** ere arduratu da Trikitixa Elkartea. Asmo horri erantzunez, Elkartearen zeuden argazkiak, kaseteak (Jabi Nabaroren Triki Not Dead saioak, Miel Haranaren lanak...) eta bideoak digitalizatu egin dira. Elkartearen zeuden VHS bideozinta guztiak Gudat enpresara eramanez, DVD formatu bihurtzeko. Alor honetan gasturik handiena azken lan honetan (materiala VHS formatutik DVDra pasatzen) eta **CDak** erosten egin da.

IRAKASKUNTZA

Irakaskuntzaren alorrean ere oparoa izan da **2004. urtea**. **Soinuaren Liburutegia** sailari dagokionez, Zabaltzenek **150 ale** erosi ditu. 2001. urtean ekin zion proiektu honi EHTEk eta geroztik 5 liburu argitaratu ditu Soinuaren Liburutegia sailaren baitan. Durangon, berriz, 45 ale saldu

ziren. Sail honetan argitaratzen diren liburuak bazkideen artean ere banatu dira.

- ZERAIN DANTZA ZAIN

Beste egitasmo berri bat ere gauzatu zen, **Zerain dantza zain** ekimena alegia. EHTEk gauzatu zuen egitasmoa, eta baita antolatu ere. 9 erromeria antolatu ziren Zerainen, dantzarako giroa pizteko asmoz. **Goierriko** trikitixa-irakasle eta **trikitixa-eskolekin** harremanetan jarri, eta erromeriarako errepertorioa eman zitzairen. Guztira 5 trikitixa-talde parte hartu zuten. Era berean, dantza-taldeekin ere jarri zen harremanetan Trikitixa Elkartea, baina ez zuen lortu erromerietarako dantza sustatzailerik. Beraz, urte osoko 9 erromerietan **Patxi Perez** dantzaria aritu zen jendea dantzarako gogoan pizten.

Aipatu beharrekoa da **9 erromerietan** bildu zela jende-kopuru polita, nahiz eta beharbada, komunikabideetan hasieran izan zuen oihartzuna apaltzen joan zen, denbora aurrera joan ahala. Antolamenduari dagokionez, herritarren harrera ona izan da oro har, baita Udalarena ere. Azken hau izan da egitasmoa gauzatu ahal izateko dirua jarri duena, gainera.



Zeraingo erromeria-giroa.

IRAKASKUNTZA

- INPERNUKO POZA

Trikitixaren inguruko mahai-inguruak izan ziren irail aldean, eta harrera ona izan zuten. 20tik 40ra bitarteko lagun-taldea bildu zen lau eguneko jardunaldi hauetan. Nabarmenezkoa da **Amagoia Iban** kazetariak **debekuen inguruan** egin zuen bilketa-lana. Edozein kasutan, arrakasta gehiena kontzertuak izan zuela esan liteke. Bestalde, mahai-inguruek funtzionatzen dutela ere argi geratu zen. Nahi izanez gero, jardunaldi mamitsu hauek guztiak **DVD formatuan** grabatuta daude.



Xabier Amuriza, trikitixari buruzko jardunaldi hauetako une batean.

- IKASTAROAK

Adolfo Jainagak partituren ediziorako baliagarria den **Encore programa** nola erabili irakatsi zuen Eibarren, eta Carlo Rizzo italiarrak, berriz, **panderoaren inguruko** hainbat teknika irakatsi zituen. Carlo Rizzok emandako ikastaroak digitalizatzen daude momentu honetan. Bi ikastaroetan gustura aritu ziren izena emandako lagunak.

HEDAKETA

EHTEk 2004an izan duen oihartzuna neurtzeko **hedabideetara** jo genezake, eta Elkarteari buruzko berriek zenbateko lekua hartu duten ikusi. Pentsari dagokionez, guztira 49 erreferentzia egin zaizkio Elkarteari. Irratian, berriz, 32 elkarrizketa egin dira: Euskadi Irratian, Arrate Irratian, Txolarre Irratian, Segura Irratian, Bizkaia Irratian eta Radio Euskadin.

- ALTZAPORRU

Elkartearen egitasmoen berri izateko, **Altzaporr**u izeneko lau buletin ateratzen ditu Elkarteari urtero. Leire Beloki arduratzen da erredakzioaz, eta Antzak maketatu eta inprimatzen du. Buletin guztiek edizio digitala ere badute sarean.

- PROFESIONALEN BILERAK

Hiru hilean behin egiten dira bilera hauek, eta **Joseba Tapiak** zuzentzen du ekimen hau; betiere trikitilari profesionali sor dakizkiekeen zalantzak argitzeko helburua gogoan hartuta.

- DURANGOKO AZOKA

Durangoko Azoka euskal kulturaren ezinbesteko hitzordua den heinean, EHTEren presentzia ere beharrezkoa da. Batez ere bazkide berriak erakartzeko eta Elkartearen izatea gizartean gehiago errotzeko da baliagarria. Aipatu beharrezkoa da 2003an baino salmenta eskasagoak izan zirela iaz. Egutegia bera ere gutxiago saldu zen, eta oraindik ere badira ale batzuk salgai. Stand-a Bizkaiko Trikitixa Elkartearekin hartu zen erdibana, eta eurek argitaratutako liburua, Bizkaiko trikitixaren partituren bilduma, jarri zuten salgai.

- 2005eko EGUTEGIA

Arestian esan bezala, gutxiago saldu da aurtengo egutegia, eta oraindik ere ale batzuk soberan daude. Beraz, norbaitek etxean gustuko egutegirik ez eta trikitixari egin nahi badio lekua, badu aukerarik EHTEren egutegia lortzeko; horretarako, Elkartearekin harremanetan jartzea besterik ez duzue.



1973ko argazki hau da egutegian ageri dena. Goian, ezkerretik hasita, Epelde, Auntxa, Bittarte eta Aberbe ageri dira. Behean, berriz, Egurrola, Migel Iturbide eta Joxe Mari Iturbide.

- TRIKI ALBISTEAK eta www.trikitixa.net

10 Triki albiste bidali zaizkie 200 bat laguni, eta honek ere balio du momentuko trikitixaren inguruko berriak ahalik eta gehien hedatzeko. Ildo berean, helbidean 45 albiste jarri dira, eta agendari dagokionez ere, 375 emanaldi iragarri dira. Disko berrien kasuan, iazkoan 5 diskoren berri emateko aukera izan genuen.

- NAZIOARTEKO TRIKITIXA JAIALDIA

Hirugarren aldiz jarraian antolatu du EHTEk **Nazioarteko Trikitixa** Jaialdia, eta **arrakastatsua** izan da, gainera. Usadio zaharrari atxikitako trikitilariak eta bide berriak urratuz dabilzanak bertatik bertara ikus-entzuteko aukera paregabea; eta nola ez, oro har trikitixarekin gozatzeko eta amesteko egun gogoangarria.

ETORRIKO DIRA BERRIAK

SANTI ZABALA 'SANTITXO' (1902-2005)

Santi Zabala pandero-jotzailea zendu da. Amortoko Santitxok **102 urte** zituela esan digu agur. Gazterik hasita, panderoa jotzen eta koplak kantatzen alaitu zituen Lea-Artibaiko herri eta auzoetako erromeriak, eta ondorioz, oso ezaguna zen inguru horietan. Bera bakarrik aritzen zen, alboan soinu-jotzailerik gabe, panderoa jo eta koplak kantatzen. Soinua jotzen ikasi zuen gero, eta baita Amortoko plazako erromerietan jo ere.

1902ko martxoaren 20an sortu zen Santitxo, Amorton. 100 urte bete aurretik, 2002ko martxoan, **omenaldia** egin zioten Amorton. Egurrola eta Iturbide, Epelde eta Larrañaga, Laja eta

Landakanda, Sahatseta eta Berastegi, Tapiak eta Leturia, eta Oletako Manolo aritu ziren, Jon Azpillaga bertsolariak gain, omenaldian. Lanbidez hargina zen, eta Amoro eta inguruetako baserri guztietan aritu zen igeltsero-lanak egiten. Azkeneko urteetan Berriatuan bizi zen Santitxo, alabaren etxean.



Santi Zabala, 1983an Elgoibarren

HAUSPO ZAHARRAK



1978. urtean Trikitilari Zaharrei lurretan egin zitzaien omenaldia. Karakol omendu zuten urte horretan. Maurizia Aldeiturriaga bere emazteak jarri zion omenaldiko txapela Karakoli. Benazio Bernaola Karakol Arratian jaio zen, 1903an. Maurizia Aldeiturriaga zeberiotarra, berriz, 1905ean jaio zen eta 1988an zendu.

KALEJIRAN

Trikitia plazatik diskora

1924koak dira trikiti grabaziorik zaharrenak, bost arbelezko disko hain zuzen. Batzuk *Trikitixa de Guipúzcoa* izena dute, eta besteek *Trikitixa de Zumárraga*. Eresbil Errenteriako musika-artxiboaren eta Mielanjel Aranaren bidez izan du Trikitixa Elkarteak grabazio hauen berri.

Kepa Arrizabalaga eta

Imanol Arregi Iturbideri omenaldia

Azpeitiko kiroldegia trikitixak bete zuen San Jose egunez. Kepa Arrizabalaga (Plentzia) eta Imanol Arregi Iturbide (Azpeitia) *pandero-jotzaileei* omenaldia egiteko asmoz, hainbat trikitilari bildu zen bertara. ETBk martxoaren 28an emango du saioa oso-osorik.

Laja, Eguren eta Ziolarren disko berria

Laja, Eguren eta Ziolarrek udaberriarekin batera, **apirilaren 6an** hain zuzen, diskoa plazaratuko dute, "Azken Jazpana" izenekoa.

TRIKITIXA ENTZUN

Hona hemen martxoan zehar www.trikitixa.net helbidean entzun daitezkeen doinuak:

- Fasio eta Maurizia Aldeiturriagaren 1976ko grabazioa.
- Luis Astiasan eta Joxe Mari Urkola, Egañazpi, 1996ko grabazioa.
- Laja eta Joxe Mari Urbietaren grabazioa, 1970 urte ingurukoa.

GALBAHEA

Epelde (Berria, 2004-XII-28)

"Dantza egiteko, ordaindu egin behar zuten mutilek, 10 zentimo piezako. Dantza gosea zegoen orduan".

Xabi Aburruzaga (Gara, 2005-II-06)

"Garai batean Bizkaian trikitixak eta porrusaldak egiten ziren, hau da, fandango edo arin-arinak, baina koplekin. **Koplak** indar handia izan du, batez ere Bizkaian; orain Gipuzkoan ere egiten da, baina garai batean fandango eta arin-arinak bakarrik egiten zituzten, pieza musikalak alegia. Gipuzkoako trikitixak maila handiagoa du, baina Bizkaikoa energetikoagoa da eta gainera koplak ditu, nahi duguna esateko aukera ere badaukagu".

Triki Punk-eko Elene Sustatxa (Berria, 2005-II-11)

"Trikitixak bere bidea jarraitu du: neskek ahotsa hartu dute, teknikan asko sakondu da, birtuosismoaren garaia ere gainditu genuen, talde askok erromeria giroarekin lotutako trikitixa bizia plazaratu dute... Hala ere, inork ez du trikitixa gure moduan jorratu. Emakumeek hitza hartu dute baina modu gozoago batean, gozoegian, gure ustez. Polita da, arrakasta izan du..."

AGENDA

APIRILA

- Tapia eta Leturia

- 9: Ermuan (B)
- 10: Oiztunen (G), pilotalekuan
- 24: Erandion (B)
- 30: Respaldizan (A)

- Hiru Truku (Joseba Tapia)

- 15: Leioan (B)
- 16: Lekeitio (B)
- 24: Erandion (B)
- 28: Lleidan
- 29: Bartzelonan, CAT-en
- 30: Respaldizan (A)

MAIATZA

- Trikitizio

- 13: Orduñan (B)